

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Larunbatetako Laudioko hurbileko merkatuan salmenta ibiltarian aritzeko postuen esleipena 2022 urtetik 2026 urtera eraenduko duten oinarriak

1. artikulua. Objektua

Oinarri hauen objektua da kudeatzea 2022, 2023, 2024, 2025 eta 2026 urteetan Laudioko hurbileko merkatuan salmenta ibiltarian aritzeko postuen emakidak egiteko deialdia, norgehiagoka bidez.

Espazio publikoa erabiltzeko aukera ematen duten baimenak emateaz gain, lizitazio honen xedea da udalerriko lehenengo sektorea bultzatzea eta 0 kilometroko produktuak saltzea, horrela, karbono-aztarna murrizteko. Gainera, helburu horiek bat egiten dute "Garapen jasangarriaren helburuekin" (GJH 2030). Nazio Batuen Erakundean arautu diren bezala.

2. artikulua. Azokaren kudeaketa

Laudio Udalak kudeatuko du zuzenean Laudioko hurbileko merkatuaren kudeaketa.

3. artikulua. Azokaren eguna eta ordua

Aldizkako izaera duen azoka legez, larunbatetan egingo da, goizeko 9:30etik eguerdiko 14:00etara. Edonola ere, merkatua ez da egingo salbuespenezko egoeretan, alkate-udalburuak berriaz emango duen Dekretu bidez adierazten dituen egunetan eta behar bezala arrazoitzen bada.

4. artikulua. Merkatuaren lekua

Aldai plazan egingo da merkatua, III. eranskin legez erantsi den krokisean jasotako kokape-nei jarraikiz.

5. artikulua. Tasak eta prezio publikoak

Dagokion udal ordenantzan bide publikoa okupatzen den kasuetarako xedatua dakarren tasa edo prezio publikoa sortuko du salpostua instalatzeak.

Tasa edo prezio publiko horiek udal ordenantza fiskaletan eta gainerako arau osagarrietan xedatutako arauei jarraikiz likidatuko dira, Laudio Udalaren Ekonomia eta Ogasun Zerbitzuak kudeatuko ditu, eta ez dira itzuliko titularra bertaratzen ez denean, ez bertaratzeko kausa edozein izanda ere, barne hartuta eguraldi txarra.

6. artikulua. Udal erregistroa

Postuak kontrolatu eta kudeatze aldera, Laudioko hurbileko merkatuko saltzaileen udal erregistroa sortu da, zeinetan saltzaile bakoitzaren datu hauek jasoko baitira:

- Erregistroan alta eman zen data.
- Titularraren datu pertsonalak.
- Titularkideen datu pertsonalak.
- Jarduera bideratzen duen postuaren zenbakia.
- Merkaturatzen dituen produktuen zerrenda.
- Gizarte Segurantzako zer araubidetan duen alta emana.

- Ekonomia jardueren gaineko zerga: epigrafea eta altaren data.
- Hala dagokionean, osasun-erregistroaren zenbakia.
- Hala dagokionean, nekazaritza ustiategiaren zenbakia.

7. artikulua. Postuen ezaugarriak

- Laudioko hurbileko merkatuan salmentan aritzen hasi aurretik, udal baimena eskuratu beharko da beti, eta erraz garraiatzeko moduko instalazio desmuntagarrietan egingo da, betiere, beharrezko segurtasun-, osasun- eta apaintasun-baldintzak betetzen badituzte. Debeekatua dago postuetan publizitatea ipintzea, salbu eta postuko titular den merkataritari berari erreferentzia egiten badio.

- Gehienez ere, 14 postu egongo dira.

- Oro har, postu bakunak baino ez dira ipiniko. Hala ere, postu bikoitzak ipintzea onartu ahalko da baldin eta deialdi honetako betekizunak betetzen dituzten postu-eskaeren kopurua ez bada iristen postu eskuragarrien gehienezko kopurura.

- Postuen fatxadek 2,5 metro luze izango dute gehienez, eta dagokion planoan zehaztutako moduan kokatuko dira, beraz, postuek ezingo dute baimendutakoa baino azalera handiagoa okupatu.

- Postuek diseinu uniformeak eduki beharko dute, Laudio Udalak xedatutakoarekin bat.
- Laudio Udalak adierazitako lekuan kokatuko dira postuak.

- Postuaren neurriak gainditzen ez dituzten mahai edo astotxoetan bideratu beharko da jarduera. Salerosgaiak ezingo dira inola ere zuzenean lurzoruaren gainean paratu, ez bada loreen eta esanbidez baimendu diren bestelako produktuen kasuan. Gainerako salerosgaiak salpostuetan kokatuko dira eta postuok 80 zentimetro altu izan beharko dute gutxienez lurzoruarekiko.

- Postuak instalatu ostean, estalduraren beheko ertzak ezingo du 2,20 metroko altuera gainditi. Edozein elementu finko zein mugikor lurzoruarekiko 2,20 metro baino baxuago badago, zoruraino luzatuko da, oinplanoarekiko ahalik eta proiektiorik handienarekin.

- Erabat debeekatua dago azokan megafonia instalatzea.
- Saltzailearen ardura izango da postua muntatu eta desmuntatzea.
- Erabat debeekatua dago postuak bateratzea, modua edozein izanda ere.

- Eguneko merkataritza-jarduera amaitu ostean, saltzaileek garbi eta txukun utzi beharko dute postuak hartu duen lekua eta ingurunea.

- Elikagaiak eta edariak saltzeko instalazioei zein postuei dagokienez, zorrozki bete beharko dira saltzen diren produktuen zein instalazioen arau espezifikoetan xedatutako higiene- eta osasun-baldintzak, baita bestelako baldintzak ere, eta osasun- nahiz merkataritza-araudi berezietan agindutakoa hertsiki betetzen dela zaindu beharko da.

- Beharrezkoa denean, postuek hotz-katea ez apurtzeko beharrezko ekipamendua izan beharko dute postuek, eta salerosgaiak eguratsetik zein eguzki-erradiatortik babesteko sistemaren bat ere eduki beharko dute.

- Pisatu edota neurtu beharreko salgaiak dituzten postuek arauzko baskula edota metroa izan beharko dute.

- Postuen titularrek edota titularkideek ikusteko moduko lekuan ipini beharko dute udal baimena.

- Instalazioetan ez da inolako publizitaterik ipiniko, ez bada merkaturatzen ari diren produktuei buruzkoa.

8. artikulua. Produktuak eta segurtasun- nahiz higiene-baldintzak

- Salmenta ibiltarian aritzeko udal baimen edo lizentzian adierazitako produktuak baino ezingo dira saldu azoka honetan, eta, betiere, saltzaileak berak bere ustiategietan edota lurretan zuzenean ekoitzi, haiz edota eraldatutakoak izan beharko dute, beraz, beren-beregi debekatua dago produktuak birsaltzea.

- Baimenetan zehaztu beharko da zer produktu saldu daitekeen, eta, beraz, merkatariak ezingo ditu bestelako produktuak saldu. Nolanahi ere, oinarrizko produktuen merkaturak izango da, oinarrizko produktu legez honako hauek hartuta:

- Okindegikoak: Ore amaz eta egur labean egindako askotariko ogiak, aurrez prestatutako, izoztutako edo gehigarri nahiz hartzigarri artifizialez prestatutako ogiak baztertuz. Ogi biribilak, moldekoak nahiz barrak.

- Artisau gozogintza: gailetak, magdalenak, bizkotxoak, euskal pastela, gazta opilak, askotariko pastelak, errokillak, etab.

- Barazkiak, ortuariak, lekaleak eta garaian garaiko fruta: garaian garaiko eta bertoko ekizleek barazki, tomate eta ortuariak, bertoko frutak, bertoko edo gertuko tuberkuluak, bertoko edo inguruko lekaleak, etab.

- Esneki sortak: Aiarako nahiz zonaldeko gaztak (Idiazabal, gaztanbera eta bestelakoak), bertoko jogurt eta mami ekologiko edota artisauak.

- Harategikoak nahiz urdaitegikoak (abelgorriak, ardiak, txerriak, hegaztienak...) (hozkailean/beira-aran): Aiaraldeko okela (xerrak, txuletak, gisatzeko okela, trazabilitate-berme guztiak dituzten hanburgesak hutsean ontziratuak, etab.), solomoa, txorizoak, txistorrak, saltxitxak, odolosteak, etab.

- Bestelakoak: Basetzeko arrautzak, artisau-marmeladak, eztiak, inguruko produktuak kontserban, etab.

- Haztegi edo mintegiko landareak: Aiaraldeko mintegi eta haztegietako landareak baino ezingo dira saldu, eta, beraz, erabat debekatua dago haztegi edo mintegi industrialetatik datozenak saltzea.

- Produktu mota bat baino gehiago saltzen duten postuak baimendu ahalko dira.

- Kasuan kasuko sektoreko legedian produktu bakoitzerako xedatzen diren segurtasun- eta higiene-baldintzak betetzen dituzten produktuak saltzea baino ezingo da baimendu.

- Baimenen titularrek zorrozki beteko dituzte merkaturatzen dituzten produktuei dagokienez aplikatu beharreko araudi tekniko eta sanitarioak, baita aplikagarri izan daitekeen gainerako arauak ere.

- Behar bezala kontserbatzeko hotz gorde behar diren produktuek hozteko gai diren erakusleketan egon beharko dute.

- Salerosgaiak kudeatu eta manipulatu dituzten langileek eskuak xaboiz eta erabilera bakarrek xukaderaz garbitu ahal izateko modua izan behar dute.

- Zailtasunik gabe identifikatzeko moduko jatorria izan behar dute kontsumituko diren elikagaiak prestatzeko erabiltzen diren salerosgaiak eta lehengaiak. Behar bezala etiketatuko dira, horri dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat. Ez da iraungitze-data igarota duen edo kontserbazio-egoera kaskarrean dagoen produkturik erabiliko. Nolanahi ere, elikagai buruzko legedian xedatutako espezifikazioak bete beharko dituzte elikagai guztiek.

- Ontziratu gabeko produktuen kasuan, datu hauek eman beharko dira erraz ikusteko moduko errotulu edo kartel baten bidez: produktuaren izena, jatorria eta alergenoen identifikazioa (hala dagokionean, kontsumitzaileen batek beharko balu, eman ahal izateko).

- Debehatua dago elikagaien manipulazio oro, zatikatzea izan ezik.
- Elikagai guztien kasuan, saihestu egin beharko da eguzkiak zuzenean jo ditzan.
- Prebentziorako higie-ne eta osasun-neurri guztiak beteko dira elikagaiak manipulatzekoan, esaterako, elikagai fresko eta prestatuak giro tenperaturan ez uztea, eskuak behar bezain maiz garbitzea, kutsatze gurutzatuak ekiditea, etab.
- Elikagaiekin kontaktuan dauden langileek zorrotz eta txukun jokatu beharko dute euren higienari dagokionez, eta euren jardueraren arabera egokitzat jotzen den elikagaien higienari buruzko prestakuntza-ziurtagiria izan beharko dute.
- Prezioen zerrendak edo kartak ikusgai ipini beharko dira, eskatu beharrik gabe irakurtzeko moduan.

9. artikulua. Zamilanak

- Salerosgaiak garraiatu eta gordetzeko ibilgailuak berariaz adierazitako bideetan zehar sartu beharko dute azokan, adierazitako norabidean.
- Ibilgailuak produktuen zamilanak egiteko azokaren esparruan sartzeko, azoka hasi aurreko bi orduak erabiliko dira, eta azoka bukatu osteko ordubetea. Saltzeko ordutegian debehatua dago ibilgailuak azokaren esparruan zehar zirkulatzea.
- Salmentan ari diren pertsonen ibilgailuak ezingo dira azoka barruan edo salpostuaren alboan egon, ez bada zamilanetarako orduetan; azokatik gertu horretarako prestatu diren lekuetan aparkatu beharko dira gainerakoetan.
- Azokan saltzekoak diren salerosgaiak garraiatu eta gordetzeko baino ez dira erabiliko ibilgailuak, eta ezingo da inolako salmentarik egin ibilgailuetan.

10. artikulua. Baimenen titularren betebeharrak

Dagozkion udal ordenantzetan eta gainerako arau osagarrietan xedatutakoez gain, jarraian ageri diren betebeharrak gorde beharko dituzte saltzaileek:

- Saltzaile guztiak egun bakoitzean egindako salmentak jaso beharko dituzte erregistro batean.
- Azoka honetan parte hartzeko nahitaezko betekizuna da salduko diren salerosgaien ekoizle edota prestatzaile izatea.
- Saltzaileek alta emanda izan behar dute ekonomia jardueren gaineko zergaren barruan dagozkien epigrafeetan, eta zerga ordaindua izan behar dute. Hala dagokionean, BEZ-ean alta emana izan behar dute nekazaritzako, abeltzaintzako, arrantzako edota basogintzako araubide egokian, eta kasuan kasuko BEZ aitortpenak egin beharko dituzte.
- Saltzaileek alta emanda izan behar dute Gizarte Segurantzaren araubide egokian eta egunean izan behar dute kuoten ordainketa baimenaren indarraldi osoan. Baimenduen laguntzaileek eta haien kargura dihardutenek ere azken betekizun hori bete beharko dute.
- Hala dagokionean, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren ustiatzearen erregistroan alta emana izatea.
- Saltzaileek kasuan kasuko epeen barruan ordaindu beharko dituzte dagozkien tasak eta prezio publikoak.
- Saltzaileek ezingo dute izan Audio Udalarari ordaindu gabeko zenbatekorik, edozein izanda ere ordainketaren izaera.
- Saltzaileek kontsumitzaileen erreklamazioak hartzeko lekuaren helbidea adierazi beharko dute.
- Atzerritarren kasuan, pertsona fisikoak badira, egoitza- eta lan-baimenak eduki beharko dituzte, edo bertan bizi eta lan egiteko baimena emango dien beste edozein dokumentazio. Pertsona juridikoak izatekotan, horiei dagokienez indarrean dauden xedapenak bete beharko dituzte.

- Postuan egongo diren pertsonen datuak esanbidez adierazi beharko dira salmenta ibiltarian aritzeko lizentzia-eskaeran. Nolanahi ere, ezingo da bi titularkide baino gehiago egon lizentzia bakoitzeko, eta horiek ere deialdian xedatutako baldintzak eta eskakizunak bete beharko dituzte.

- Erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko dute salmenta ibiltariaren jardunak ekar ditzakeen arriskuak estaltzeko.

Udalaren baimena pertsonala eta besterenezina da. Hala ere, baimena erabili ahal izango dute jabearen ezkontideak, seme-alabek nahiz enplegatuek, betiere, Gizarte Segurantzian alta emana badute. Edozein kasutan ere, baimenaren titularra ez den beste norbanako batek baimen hori erabili ahal izateko, Udalari berariaz eman beharko zaio horren berri eta Udalaren baimena lortu beharko da. Baimen hori noiznahi eskatu ahalko da.

11. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hogeita hamar egun naturaleko epea egongo da eskaerak aurkezteko. Instantzia normalizatuaren bidez eskatu beharko dira, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (udaletxeko beheko solairuan), edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean zehaztutako beste moduetan.

Eskaerekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

- Salmenta ibiltariko azokan salpostua edukitzeko eskaeraren inprimaki normalizatua (I. eranskina).

- Eskatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan adieraziko baita Laudion salmenta ibiltariaren jardura arautzeko udal araudian xedatutako betekizun guztiak eta deialdi honen oinarri arautzaileetan xedatutakoak betetzen direla. (II. eranskina).

- Saldu nahi diren produktuen zerrenda.

Gehenez ere, hiru hilabete ebatziko da prozedura eta jakinaraziko zaio ebazpena esleipendunari. Dagokion deialdia argitaratzen denetik hasiko da epea zenbatzen, betiere, Balorazio Organoak horren ondoreak aurreragoko egun batera atzeratzen ez baditu. Epe hori esanbidezko ebazpena jaso barik agortzeak ez du esan nahi eskatzaileek inongo eskubiderik lortu dutenik.

Titular eta titularkide bakoitzeko eskaera bana baino ezin da aurkeztu. Titular batek eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, udal erregistroan lehenengo sartu zena baino ez da hartuko kontuan. Pertsona berak eskaera bat aurkezten badu titular legez, eta beste bat titularkide legez, bi eskaerak ezetsiko dira.

12. artikulua. Esleitzeko irizpideak

Xedatutako betekizunak betetzen dituzten eskatzaile guztiak salmentan aritzeko eskubidea izango dute postu librean dauden bitartean, eta, esleipenak egiteko, irizpide hauek aplikatuta lortzen den puntuazioaren arabera hurrenkerari jarraituko zaio:

A) Produktuen jatorria: gehenez, 30 puntu.

Produktu gehienak Laudioko udal mugartean ekoitzi edo prestatzea	30 puntu
Produktu gehienak Aiaraldeko* beste udal mugarteren batean ekoitzi edo prestatzea	15 puntu
Produktu gehienak Arabako beste udal mugarteren batean ekoitzi edo prestatzea	10 puntu
Produktu gehienak Euskal Autonomia Erkidegoko beste udal mugarteren batean ekoitzi edo prestatzea	5 puntu
Produktu gehienak Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko beste udal mugarteren batean ekoitzi edo prestatzea	puntu 1

*Aiaraldean sartzen dira Laudio, Amurrio, Aiara, Artziniega eta Okondo udalerriek definitzen duten esparrua.

Puntu-berdinketarik egotekotan, Laudioko ostegunetako azoka tradizionalen saltzeko baimena indarrean zenbat hilabetez eduki den zenbatuta hautsiko da.

13. artikulua. Eskaerak aztertzea eta esleipena egiteko prozedura

1. Eskaerak aurkezteko epea agortutakoan, aztertu eta baloratu egingo dira, lehenetasunen zerrenda osatze aldera. Audio Hazi, Audioko Garapen Agentziako langile teknikoek egingo dute balorazio hori, deialdian xedatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta eskaerak aztertu ostean. Eskaera bi edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, ukitutako pertsonen jakinaraziko zaie eta zozketa egingo da berdinketa hautsi eta ordena zehazteko, haiek bertaratzen badira, euren aurrean, eta, bestela, idazkari nagusiaren aurrean, egintzaren fede eman dezan eta espedientean jasoa utzi dezan.

2. Behin eskaeren balorazioa eginda, esleipendunen zerrenda argitaratuko da udal webgunean, deialdi hauen arabera eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioei erreparatuta, handienetik txikienera. Argitalpen horretan jasoko dira zerrendako zenbakia k eta dagokion eskaerari emandako sarrera-erregistroko zenbakia.

3. Argitalpena egin ostean, jakinarazpen bat igorriko zaie zerrendako pertsonen salpostua aukeratzeko egunaren eta orduaren berri emateko. Pertsona eskatzaileek zerrendan duten hurrenkerari jarraikiz eta dokumentu honen III. eranskinean jasotako postuen kokapena errespetatuta hautatuko dituzte eskatzaileek salpostuak, eta espedientean jasoa utziko da euren hautua.

4. Deialdian xedatutako betekizunak bete arren, postu-esleipenik jaso ez duten pertsonak itxaronzerrendan geratuko dira.

5. Aurreko gutzia ikusi eta aztertu ostean, ebazpen-proposamena emango da, Tokiko Gobernu Batzarrak dagokion erabakia har dezan. Salpostuaren esleipena eman edo ukatzeko ebazpena eskaeran adierazitako helbidean jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluan xedatzen denari jarraikiz.

6. Eskaera urrien ondorioz, ezinezkoa denean postu bakunak esleipenekin eskuragarri dagoen gehieneko postu-kopuru osora iristea eta soilik kasu horretan esleitu ahalko zaizkie postu bakoitzak lehenago hori eskatu duten pertsonen, eta, betiere, lortu duten puntuazioaren arabera hurrenkeran.

14. artikulua. Pertsona esleipendunek aurkeztu beharreko dokumentazioa. Postuaren titularraren izaera egiaztatzea

1. Esleipena jaso izanaren berri izatean, esleipendunek 15 laneguneko epea izango dute, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunetik aurrera zenbatuta, jarraian ageri den dokumentazioa aurkezteko:

- Titularraren eta titularkideen (hau da, titularraren bazkide edo soldatapekoen) Gizarte Segurantzako azken ordainketaren agiria edo Gizarte Segurantzako araubide egokian alta jaso izanaren ziurtagiria.

- Azokan bideratuko den salmenta-jarduerak eragin litzakeen kalteak eta galerak estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza.

- Titularraren eta titularkideen argazki bana, nortasun agirirako neurrikoa.

- Azoka honetan salmenta ibiltarian aritzeko tasa edota prezio publikoen ordainagiriak helbideratuko diren banku-kontuaren titulartasunziurtagiria.

- EJZ-ren alta edo EJZ-ko alden eta baje ziurtagiria, biak ala biak epigrafe egokian.

- Udal baimena titularraren ezkontideak edo seme-alabek erabiliko badute, familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da, baita NAN-aren fotokopia, eta jarduera titularraren izenean bideratu dezaketen pertsonen (ezkontidearen edota seme-alaben) argazki bana, nortasun agirirako neurrikoak.

Esleipena jaso bai, baina adierazitako dokumentazio osoa epe barruan aurkezten ez duten pertsonen eskaerak ezetsizat joko dira.

2. Gorago adierazi den dokumentazioa aurkeztu ostean, esleipendunekin harremanetan jarriko dira udal langileak, salpostuan ikusgai ipini beharreko txartelak jaso ditzaten. Titularrak berak edo titularkideek jaso ahalko dituzte baimenak, euren burua identifikatu ostean.

15. artikulua. Baimenen indarraldia. Baimenak iraungitzea

1. Udal ordenantzaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera ematen diren baimenek urtebeteko indarraldia izango dute esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Urtebeteko luzapena egingo da urtero, 2026. urtea arte, hori barne.

2. Udal ordenantzetan eta gainerako arau osagarrietan espazio publikoa erabiltzeko baimenak amaiarazteko jasoak dauden arrazoiez gain, azoka honetan salmenta ibiltarian aritzeko lizentzia edo baimenak amaiarazteko kausa bereziak izango dira honako hauek ere:

- Baimenaren indarraldia amaitzea.
- Titularrak baimenari uko egitea. Idatziz adierazi beharko da ukoa.
- Titularraren heriotza, erretiroa edo gerora etorritako ezgaitasuna. Kasu horretan, titularraren ezkontideak, seme-alabek edota baimendutako pertsonak erabili ahalko dute baimena, baldin eta lehenago horretan aritutakoak badira, haien jarduera profesional nagusia bada eta Gizarte Segurantzaren nahiz Jarduera Ekonomikoen Erregistroan alta emana duela egiaztatzen badute.
- Baimena galtzea dakarren zigorra jasotzea.
- Baimena lortzeko eskatu zen betekizunetakoren bat betetzeari uztea.
- Ez joatea azokara ondoz ondoko 4 astez, edo txandakako 8 astez 12 hilabeteko epean Udalari aurretiaz adierazi eta justifikatu barik.
- Baimena baliogabetzea: baimenek eskatu ahalako izaera dute eta, beraz, Udalak egokitzen jotzen duenean indargabetu ahalko ditu baimena emateko oinarri izan ziren baldintzak desagertzen direnean, interes publikoaren izenean edota ordenantza eta aplikagarriak diren beste arauak betetzeko; horrek ez du inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko.

- Azoka egiteari uztea.

16. artikulua. Postu hutsak

Urteak aurrera egin ahala hutsik gera daitezkeen postuak betetzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

- Lehenik eta behin, itxaronzerrendan daudenei eskainiko zaie postu hutsa, itxaronzerrendaren hurrenkerari jarraikiz.
- Itxaronzerrendan ez badago pertsona nahikorik, postu hutsak betetzeko beste deialdi bat egitea erabaki ahalko da, edo postu hutsak euren horretan utzi.

17. artikulua. Kontrola eta egiaztapena

Laudio Udalak edo haren eskuordetza jasotzen duen erakundeak ofizios bideratuko ditu lizentziaren objektu diren postuak egoki erabiltzen direla bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-lanak, baita postuetan bideratzen den jarduera kontrolatzekoak ere, ebazpen honetan, aplikagarri diren udal ordenantzetan nahiz jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako lege eta arauetan jasotako helburuak betetze aldera. Horretarako, produktuak, jarduerak, ibilgailuak eta instalazioak ikuskatu ahalko ditu, eta saltzaileei beharrezkotzat jotzen den informazio edota dokumentazio guztia ere eskatu ahalko die.

18. artikulua. Zehatze-araubidea

Laudioko udal mugartean salmenta ibiltaria arautzeko udal ordenantzaren xedatutakoaren arabera izango da zehatze-araubidea.

Laudio, 2021eko urriaren 25a

Alkate-udalburua
ANDER AÑIBARRO MAESTRE



LAUDIO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LLODIO

I. ERANSKINA / ANEXO I.

Azokan salmenta ibiltarian aritzeko postua eskatzeko inprimaki normalizatua
Impreso normalizado de solicitud de puesto de venta en mercado de venta ambulante.

IZENA / NOMBRE: _____

NAN / DNI _____

HELBIDEA/DIRECCIÓN: _____

TELEFONOA: _____

HELBIDE ELEKTRONIKOA / EMAIL: _____

ADIERAZTEN DUT / EXPONE

Ikusi egin dudala ALDAI PLAZAKO LARUNBATEKO HURBILEKO MERKATUAN 2022tik 2026ra salmenta ibiltarian aritzeko postuak esleitzeko deialdia egin dela eta, deialdi hori eraentzen duten oinarriak kontuan hartuta,

Que a la vista de la convocatoria de para la adjudicación de puestos de venta ambulante desde el año 2022 hasta el año 2026, ambos inclusive, en HURBILEKO MERKATUA DE LOS SABADOS EN LA PLAZA ALDAI, y teniendo conocimiento de las bases que rigen dicha convocatoria,

ESKATZEN DUT / SOLICITA

Esleitu dakidala postu _____ bat (bakuna edo bikoitza) ALDAI PLAZAKO LARUNBATEKO HURBILEKO MERKATUAN. Horretarako, dokumentu hauek erantsi ditut, eta egiazkoak direla ziurtatzen dut:

le sea adjudicado un puesto _____ (sencillo o doble) en HURBILEKO MERKATUA DE LOS SABADOS EN LA PLAZA ALDAI, y para ello se adjuntan los siguientes documentos y cuya veracidad certifico:

- Salpostua eskatzeko inprimaki normalizatua
Impreso normalizado de solicitud de puesto de venta
- Erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina)
Declaración responsable (Anexo II)

Dokumentu hau sinatuta, baimena ematen zaio Ludio Udalarri espediente hau izapidetzeko behar-beharrezkoak diren eta beste administrazio batzuen esku dauden datuen kontsultak eta egiaztapenak egiteko, datuak elkartrukatzeo eskuragarri dauden baliabideak erabilia (Laudion salmenta ibiltaria arautzeko udal ordenantzaren 8. artikulua, 36. ALHAO, 2021eko martxoaren 31koa), salbu eta zuk zeuk esanbidez ukatzen badiozu.

La firma del presente documento autoriza al Ayuntamiento de Llodio, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a realizar las comprobaciones y

consultas estrictamente necesarias de los datos que obren en poder de cualquier Administración y que resulten precisos para la tramitación del presente expediente, (Artículo 8 de la ordenanza reguladora de la venta ambulante de Llodio BOTHA nº36 de fecha 31-03-2021), salvo que usted se oponga expresamente.

BAIMEN HORI UKATZEKOTAN, DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DA / EN EL CASO DE OPOSICIÓN DEBERÁ APORTARSE LA DOCUMENTACIÓN CORRESPONDIENTE

EZ BADUZU NAHI UDALAK EGIAZTAPEN HORI EGITERIK, MARKATU X BATEZ JARRAIAN AGERI DEN KOADROTXOA / SI USTED SE OPONE A DICHA COMPROBACIÓN MARQUE CON UNA X EN EL SIGUIENTE RECUADRO:

Ez dut nahi / Me opongo

Laudio, 2021eko _____ (a)ren _____ (ea)n,
Llodio, a _____ de _____ de 2021

Izenpea / Firma

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa betetze aldera, Laudio Udalak jakinarazten du ematen dizkiguzun datu pertsonalak "Hurbileko Merkatua" izeneko fitxategian sartuko direla. Laudio Udala da fitxategi horren titularra, eta pertsona edota erakunde desberdinentzako dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko da. Nahi izanez gero, datuok atzitu, zuzendu eta ezeztatze eskubideak nahiz tratamenduari aurka egiteko eskubidea erabil ditzakezu Laudioko udaletxeko informazio-bulego zentralera jo dezakezu, helbide honetan: Herriko Plaza, 8, 01400 Laudio. Herritarrentzako Arreta Bulegoan ere egin dezakezu.

El Ayuntamiento de Laudio/Llodio, en cumplimiento con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. Nos proporciona serán incluidos en el fichero "Hurbileko Merkatua" titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la de gestionar subvenciones de diferentes personas o entidades. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la oficina de información Central del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, en la siguiente dirección: Herriko Plaza n. 8, 01400 Laudio/Llodio, y en la Oficina de Atención Ciudadana.

**LAUDIO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE LLODIOII. ERANSKINA / ANEXO II.
Erantzukizunpeko adierazpena / Declaración responsable

IZENA / NOMBRE: _____

NAN /
DNI: _____

ADIERAZTEN DU / DECLARA

- Pertsona eskatzaileak eta pertsona titularkideek bete egin dituztela Laudioko mugartean salmenta ibiltaria arautzen duten udal araudian xedatutako betekizun guztiak.

Que la persona solicitante y las personas cotitulares cumplen con los requisitos para la venta exigidos en la normativa municipal que regula la venta ambulante en el término municipal de Laudio/Llodio.

- Pertsona eskatzaileak eta pertsona titularkideek bete egin dituztela 2022tik 2026ra Hurbileko Merkatuan salmenta ibiltarian aritzeko salpostuen esleipena eraentzen duten oinarri arautzaileetan xedatutako betekizun guztiak.

Que la persona solicitante y las personas cotitulares cumplen con los requisitos establecidos en las Bases que rigen la adjudicación de puestos de venta ambulante desde el año 2022 hasta el año 2026, ambos inclusive, en Hurbileko Merkatua.

Eta egoki den lekuan jaso dadin, hau izenpetu dut / Y para que conste donde proceda, así lo firma

Laudio, 2021eko _____(a)ren _____(ea)n,
Llodio, a _____ de _____ de 2021

Izenpea / Firma

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa betetze aldera, Laudio Udalak jakinarazten du ematen dizkiguzun datu pertsonalak "Hurbileko Merkatua" izeneko fitxategian sartuko direla. Laudio Udala da fitxategi horren titularra, eta pertsona edota erakunde desberdinentzako dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko da. Nahi izanez gero, datuok atzitu, zuzendu eta ezeztatzeko eskubideak nahiz tratamenduari aurka egiteko eskubidea erabil ditzakezu Laudioko udaletxeko informazio-bulego zentralera jo dezakezu, helbide honetan: Herriko Plaza, 8, 01400 Laudio. Herriarrentzako Arreta Bulegoan ere egin dezakezu.

El Ayuntamiento de Laudio/Llodio, en cumplimiento con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales que Vd. Nos proporciona serán incluidos en el fichero "Hurbileko Merkatua" titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la de gestionar subvenciones de diferentes personas o entidades. Si lo desea puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la oficina de información Central del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, en la siguiente dirección: Herriko Plaza n. 8, 01400 Laudio/Llodio, y en la Oficina de Atención Ciudadana.



III. ERANSKINA / ANEXO: Plano.



